

KANALAK:

Gure lokala fisikoki Beasain eta Irunen egongo da. Horrez gain, Goierriko hipermerkatuetan boluntarioak egongo dira. Hipermerkatu horiekin hitzartu dugun bezala, beraiek elikadurarako produktuak emango dizkigute laguntzeko. Elikagaiak borondatez emango dizkigute gure topagunetara, hau da, boluntarioak dauden hipermerkatuetan bilduko dira.

Beste baliabide baten bitartez ere jasoko ditugu eta hauek diru laguntzak izango dira, kanal hau ez da izango zuzenekoa baizik eta, interneteko sarearen bitartez izango da. Hau da, internetean web-gune bat sortuko dugu eta bertan kanpaina bat irekiko dugu, horrela internet bitarteko boluntario anonimoek elikagaiak erosteko diru laguntzak eman ahalko dituzte transferentzia baten bitartez.

Bezero eta gure arteko kanala zuzenekoa izango da. Bezeroekin, ain zuzen etorkinekin aurrez aurre egongo gara gure zerbitzua ematerako garaian.